

5/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 5/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

HITZAURREA

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak (orain arte gure tributu-sisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga da ituntze berriko tributu horietako bat, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 34. artikuluan xedatutakoarekin bat, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Beraz, beharrezkoa da xedapen hau ematea, batetik, zergapetze mota berri honi buruzko arauketa gure antolamenduan sartzeko eta, bestetik, arauketa horretan Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasotzeko.

Europar Batasunaren zerga-, energia- eta ingurumen-politika eraentzen duten oinarrizko printzipioekin bat egiteko, 2013ko abenduaren 29ko 16/2013 Legea onartu zen, zeinaren bidez ingurumen-fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri ziren eta beste tributu- eta finantza-neurri batzuk onartu ziren. Izan ere, besteak beste, mekanismo batzuk sartu nahi ziren ingurumeneko kanpo-efektu jakin batzuk zuzentzeko, hala nola berotegi-efektuko gasen emisioak eragindakoak. Horretarako, bada, berotegi-efektua duten gas fluoratuen kontsumoari buruzko zerga bat ezartzen da.

Gas fluoratuen kontsumoaren gaineko zeharkako tributu bat da, zeinak fase bakarrean kargatzen duen gas horiek kontsumorako prest egotea eta, horretarako, atmosfera berotzeko potentziala kontuan hartzen duen. Bestalde, kenkari bat ezarri da zergan, haren xede diren produktuak suntsitu direla egiaztatzen den kasuetarako; izan ere, halako aukerak arautzeak teknologia ekologikoen garapena bultzatzen du.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Izaera.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga bere eremu objektiboan sartzen diren produktuen kontsumoan eragiten duen zeharkako zerga bat da, eta fase bakarrean kargatzen du produktu horien kontsumoa, atmosfera berotzeko duten potentzialaren arabera.

2. artikulua. Eremu objektiboa.

Zerga honen ondorioetarako, «berotegi-efektuko gas fluordun» izaera izango dute hauek: berotegi-efektuko gas fluordun batzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 17ko 842/2006 (EE) Erregelamenduko I. eranskinean jasotzen diren hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarburoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF6); substantzia horiek dituzten prestakinak, birsortzaileak eta birziklatuak, ozono-geruza ezabatzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera araututako substantzien kasuan salbu.

3. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

1. Ekonomia Ituneko 34.artikuluak xedatutakoaren esparruan, foru arau honekin eta berau garatzen duten xedapenekin bat galdatuko da zerga.
2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

4. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio hurrengo artikuluan adierazitako azken erabiltzaileek zergaren xede diren produktuak Bizkaiko Lurralde Historikoko instalazio, ekipo edo aparatuetan erabiltzen dituztenean.

Berotegi-efektuko gas fluordunak autokontsumorako direnean, ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio baldin eta autokontsumoa Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten bada.

Aurreko paragrafoetan jaso ez diren gainerako kasuetan, ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio baldin eta zerga-egitatea gauzatzen den zergadunaren establezimendua Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.

5. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Zerga honen ondorioetarako, honela definitzen dira kontzeptu hauek:

1. "Azken kontsumitzailea": Berotegi-efektuko gas fluordunak birsaltzeko, beste produktu batzuekin batera erabiltzeko edo bere instalazio, ekipo edo aparatuen azken produktu gisa erabiltzeko, ekipo edo aparatuek fabrikatzeko edo ekipo edo aparatuek kargatu, berriz kargatu, konpondu edo mantentzeko jasanarazitako zergarekin erosten dituen pertsona edo entitatea.

Beti izango da azken kontsumitzailea berotegi-efektuko gas fluordunak ekipo edo aparatuek fabrikatzeko edo ekipo edo aparatuek kargatu, berriz kargatu, konpondu edo mantentzeko erosten duen pertsona edo entitatea, soilik honako jarduera hauetarako ziurtagiria duena: 3 kilogramo gas fluordunetik beherako hozgarrikargako hozkailu-sistemak dituzten ekipoak maneiatzeko, edo ibilgailuetan pertsonen konfort termikorako instalatuta dauden hozgarri fluordunak erabiltzen dituzten hozkailu-sistemak maneiatzeko, kontuan hartuta zer ezartzen duen 2010eko ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak (gas fluordunen merkaturatzea, maneiatzea eta haietan oinarritutako aparatuen arautzen dituen) lehen eranskinean.

Ondorio horietarako, ibilgailuetan hartuko da pertsonak edo salgaiak garraiatzeko edozein bitarteko —nekazaritzan edo industrian erabiltzen diren makina mugikorak, barne—, trenbideak, ontziak eta aireontziak izan ezik..

2. «Ekipo eta tresna berriak»: lehen aldiz erabiltzen diren edo abian jartzen diren ekipoak, tresnak eta instalazioak dira.
3. «Atmosfera berotzeko potentziala»: berotegi-efektuko gas fluordun batek karbono dioxidoaren potentzialarekin alderatuta duen berokuntza klimatikorako potentziala da, 100

urte inguruko epea hartuta kontuan. Gas horiek 11.1 artikuluan adierazten den atmosfera berotzeko potentziala dute.

4. «Prestakin batek atmosfera berotzeko duen potentziala»: 11.1 artikuluan aipatzen den substantzia bakoitzaren pisuaren arabera zatikien batura atmosfera berotzeko duten potentzialarekin eta +/-%1eko pisu-tolerantziarekin biderkatuz eratorritako batezbesteko haztatua da.
5. «Prestakina»: bi substantziaren edo gehiagoren arteko nahasketa, horietako bat gutxienez berotegi-efektuko gas fluorduna denean, prestakin horrek atmosfera berotzeko duen potentziala 150 baino txikiagoa denean salbu.
6. «Birziklatzea»: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzeko den lurraldean garbiketarako oinarritzko prozedura bidez egiten den tratamendua.
7. «Birsorkuntza»: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean prozedura edo tratamendu kimikoen bitartez egiten den berreskuratzeko tratamendua eta hobekuntza; betiere, gas fluordunaren ezaugarri teknikoak buruzko arauaren arabera mailak ezartzeko helburuarekin.
8. «Birsaltzailea»: Kudeaketa-bulegoak erregelamenduz ezartzen denari jarraituz baimenduta egonik zerga honen peko gasak zerga ordaindu gabe honako erabilera hauetarako erosten dituen pertsona edo entitatea:
 - a) azken kontsumitzaile bati, edo beste pertsona edo entitate bati emateko, zerga aplikatzen den lurralde-esparruan merkaturatzeko edo zerga aplikatzen den lurralde-esparrutik kanpo bidali edo erabiltzeko.
 - b) bere bezeroen ekipo edo aparatuak kargatu, berriz kargatu, konpondu edo mantentzeko erabiltzeko.
9. Artikulu honetan agertzen diren kontzeptuei eta terminoei dagokienez, eta bertan hala definitzen den kasuetan salbu, berotegi-efektuko gas fluordunei dagokienez Europar Batasuneko eta Estatuak araudian xedatzen dena bete beharko da.
10. Zergaren aplikazio-eremua: Espainiako lurraldea.

6. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zerga hauei aplikatuko zaie:
 - a) Europar Batasunean ekoitzi, inportatu edo erosi ondoren lehenengoz saldu edo entregatzen diren berotegi-efektuko gas fluordunei. Era berean, lehen salmentaren edo entregaren parekoa izango da enpresariak berotegi-efektuko gas fluordunak berriz saltzea, horiek bereganatzean 7.1.a) artikuluan araututako salbuespena aplikatu zaienean.
 - b) Berotegi-efektuko gas fluordunen autokontsumoari. Autokontsumotzat hartuko da aurreko letran aipatzen diren enpresariak, Europar Batasuneko erosleak, inportatzaileak edo ekoizleak berotegi-efektuko gas fluordunak erabiltzea edo kontsumitzea.
 - c) Zergaren xede diren berotegi-efektuko gas fluordunen Europar Batasuneko inportazioak edo eskuraketak, baldin eta gas horiek dauden produktuen erabileraren ondorioz eguratsera isurtzen badira. Besteak beste, aerosolak, poliuretano-sistemak eta - aparrak eta poliestireno estruitua dira produktu horiek.
2. Berotegi-efektuko gas fluordunak saltzea edo ematea ez da zergapetuta egongo, baldin eta Europar Batasuneko ekoizle, inportatzaile edo erosle zerga aplikatzen den lurralde-esparrutik kanpo bidali behar baditu.

Era berean, honako hauek ez dira egongo zerga honen pean:

- Atmosfera berotzeko 150eko edo gutxiagoko potentziala duten berotegi-efektuko gas fluordunen salmentak, entregak, autokontsumoa eta Europar Batasuneko inportazioak edo eskuraketak.
 - Zerga honen xede diren gasen galerak, neurketa-tresnen zehazgabetasunen ondoriozkoak, baldin eta egiaztatu badaiteke galera horiek dagokion neurketa-tresnaren ziurtagirian zehaztutako pisu-tolerantziaren mugen barruan daudela. Behar bezala homologatuta egon behar du neurketatresna horrek, Legezko Metrologiaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako ziurtatze-programarekin bat.
3. Aurkakoa frogatu ezean, berotegi-efektuko gas fluordunak zergarekin lotutako salmenta edo entregaren xede izan direla ulertuko da, zergadunek produktu fabrikatuen, inportatuen edo erosien norakoa justifikatzen ez dutenean.

7. artikulua. Salbuespenak.

1. Honako hauek salbuetsita geratuko dira, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan:
 - a) Berotegi-efektuko gas fluordunak zerga aplikatzen den lurralde- esparruan birsaldutako behar dituzten enpresariei lehen aldiz saltzea edo entregatzea, betiere pertsona horiek birsaltzaile izaera badute foru arau honetako 5. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoaren arabera.
 - b) Enpresariei berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea — produktu, ekipo edo aparatuetan daudenak barne—, gas horiek zerga aplikatzen den lurralde-esparrutik kanpo bidali edo erabiltzeko.
 - c) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea gas horien konposizioa guztiz aldatzeko transformazio kimikoko prozesuetan lehengai gisa edo beste gas fluordun batzuekin nahasteko lehengai gisa erabiltzen dituzten enpresariei.
 - d) Berotegi-efektuko gas fluordunak enpresariei lehen aldiz saltzea edo entregatzea, gas horiek lehen aldiz ekipo edo aparatu berrietan txertatzen direnean.
 - e) Enpresariei berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea, gas horiek inhalaziorako aerosol dosifikatzaile gisa aurkezten diren sendagaiak fabrikatzeko erabiltzen direnean.
 - f) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea, gas horiek ekipoak edo aparatuak berriz kargatzeko erabiltzen direnean (haietatik beste gas batzuk atera ondoren), eta egiaztatzen denean ateratako gas horiek eskumena duen administrazio publikoak onartutako hondakin-kudeatzaileen esku utzi direla suntsitu, birziklatu edo berrerabiltzeko. Salbuetsitako gas-kantitatea ezin izango da izan ekipotik atera eta hondakin-kudeatzailearen esku utzi dena baino handiagoa.
 - g) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea nazioarteko itsas nabigazioa edo aireko nabigazioa egiten duten itsasontzietan edo aireontzietan; jolasarako nabigazio pribatua kanpo geratzen da.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, zergaren lurralde-eremutik abiatuta lurralde horretatik kanpo amaitzen den nabigazioa izango da nazioarteko itsas nabigazioa edo aireko nabigazioa, edo alderantzizkoa. Halaber, nazioarteko itsas nabigaziotzat jotzen da industria-, merkataritza- edo arrantza-jardueretan (ez garraioan) itsas zabalean jarduten duten itsasontzien nabigazioa, betiere nabigazioaren iraupena berrogeita zortzi ordu baino gehiago bada (eskalarik gabe).

2. Erregelamendu bidez zehazten diren baldintzietan jarraiki, enpresariei edo profesionaleri egindako lehen salmentak edo entregak ehuneko 95eko salbuespena izango du, atmosfera

berotzeko 3.500 edo gutxiagoko potentziala duten berotegi-efektuko gas fluordunak suteak itzaltzeko sistema finkoetara bideratzen direnean, edo suteak itzaltzeko sistema finkoetatik inportatzen edo bereganatzen direnean.

Halaber, ehuneko 95eko salbuespena izango du honako zentro hauei egindako lehen salmentak edo entregak: ofizialki aintzatetsitako zentroei, irakaskuntza arloko lana egiteko, bakarrik; ikerlanak egiten dituzten zentroei, eta aholkularitza- edo ingeniari-taldeen proba-laborategiei edo ekoizleen ikerketarako proba-laborategiei. Edozelan ere, salbuespena izateko, berotegi-efektuko gas fluordunak ezin izango dira atera zentro horietatik edo justifikatu beharko da hondakin-kudeatzaile baten bidez suntsitzen direla.

Zentro horien zuzendariak kudeaketa-bulegoari eskatuko diote salbuespena aplikatzeko. Gas fluordunak beste zerbaitetarako erabili nahi badira edo zentro horietatik irteten badira, zuzendariak horren berri eman beharko dio kudeaketa-bulegoari.

Indar Armatuak suteak itzaltzeko ekipoetan erabiltzeko berotegi-efektuko gas fluordunen lehen salmentak edo entregak ere ehuneko 95eko salbuespena izango du.

Defentsa Ministerioak kudeaketa-bulegoari eskatuko dio salbuespena aplikatzeko. Eskabidean zehaztuko da zer gas fluordun mota eta zer kantitate eskuratu nahi diren salbuespenarekin, aurrez ikusitako beharrezanekin bat. Eskabidean jakinarazitako inguruabarrak aldatzen badira, Defentsa Ministerioak horren berri emango dio kudeaketa-bulegoari.

3. Artikulu honetako aurreko letretan arautzen diren salbuespenetarako arau honetan zein erregelamendu bidez ezarritako baldintzak mutatis mutandis betetzen direnean, salbuetsita geratuko dira berotegi-efektuko gas fluordunen autokontsumoak eta foru arau honetako 6. artikuluko 1. zenbakiko c) letran aipatzen diren berotegi-efektuko gas fluordunen Europar Batasuneko inportazioak eta eskuraketak.
4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoa gorabehera, baldin eta salbuespenerako eskubidea ematen duten erabiletarako barik beste batzuetarako baliatzen badira zenbaki horien arabera eskuratutako berotegi-efektuko gas fluordunak, lehen salmenta edo entrega egintzat joko da zerga aplikatzen den lurraldeesparruan kontsumorako erabiltzen direnean edo erabilera horietan baliatzen direnean.

8. artikulua. Sortzapena.

1. Zergaren xede diren produktuak erosleen edo, hala badagokio, autokontsumoaren eskura jartzen diren momentuan sortuko da zerga.
2. Foru arau honetako 6.3 artikuluan jasotako kasuetan, produktua fabrikatzean, inportatzean edo erostean sortuko da zerga, irregularitasuna egin den data frogatu daitekeen kasuetan salbu, horrelakoetan hura izango baita zerga sortzen den momentua.
3. Foru arau honetako 7.3 artikuluan jasotako kasuetan, lehen salmenta edo entrega egiten denean sortuko da zerga.

9. artikulua. Zergadunak.

1. Zerga Zerga ordaindu beharko dute berotegi-efektuko gas fluordunen fabrikatzaileek, inportatzaileek, erkidegoko erosleek eta hondakin-kudeatzaileek; baita gas fluordunak saldu, entregatu edo inportatu eta Europar Batasunean eskuratzen dituzten birsaltzaileek zein zergapeko autokontsumo-jarduerak gauzatzen dituzten birsaltzaileek ere.
2. Foru arau honetako 7.3 artikuluan jasotako kasuetan, zergadun gisa hartuko dira berotegi-efektuko gas fluordunak zerga aplikatzen den lurralde-esparruko salbuespen-eskubidea aplikatzen ez zaien beste erabilera batzuetara bideratzen dituzten enpresariak.

3. Foru arau honetako 6. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren kasuetan, berotegi-efektuko gas fluordunen erabilera justifikatzen ez denean ulertuko da —kontrakorik frogatu ezean— zerga ordaindu dela haien salmenta edo entrega direla-eta. Bada, kasu horietan, salmentak edo entregak egiten dituzten fabrikatzaileak, inportatzaileak, Europar Batasuneko eskuratzaileak edo birsaltzaileak izango dira zergadunak.

10. artikulua. Zerga-oinarria.

Zergaren xede diren produktuen pisuaren arabera izango da zerga-oinarria; pisu hori kilogramotan adieraziko da.

11. artikulua. Zerga-tasa.

1. 1. tarifa:

Zerga atmosfera berotzeko potentzialaren arabera izango da.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio gas fluordun bakoitzak atmosfera berotzeko duen potentzialari; dena den, gehienez ere 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko, honako epigrafe hauei jarraikiz:

Epigrafea	Berotegi-efektuko gas fluorduna	Atmosfera berotzeko ahalmena (ABA)	Mota €/kg
1.1	Sufre hexafluoruroa	22.800	100,00
1.2	HFC-23	14.800	100,00
1.3	HFC-32	675	10,13
1.4	HFC-41	92	-
1.5	HFC-43-10 mee	1.640	24,06
1.6	HFC-125	3.500	52,05
1.7	HFC-134	1.100	16,05
1.8	HFC-134 a	1.430	21,45
1.9	HFC-152 a	124	-
1.10	HFC-143	353	5,03
1.11	HFC-143 a	4.470	67,05
1.12	HFC-227 ea	3.220	48,03
1.13	HFC-236 cb	1.340	20,01
1.14	HFC-236 ea	1.370	20,55
1.15	HFC-236 fa	9.810	100,00
1.16	HFC-245 ca	693	10,04
1.17	HFC-245 fa	1.030	15,45
1.18	HFC-365 mfc	794	11,91
1.19	Perfluorometanoa	7.390	100,00
1.20	Perfluoroetanoa	12.200	100,00
1.21	Perfluoropropanoa	8.830	100,00
1.22	Perfluorobutanoa	8.860	100,00
1.23	Perfluoropentanoa	9.160	100,00

1.24	Perfluorohexanoa	9.300	100,00
1.25	Perfluoroziklobutanoa	10.300	100,00

2. 2. tarifa:

2.1. epigrafea. Prestakinak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio prestakinetik eratorritako atmosfera berotzeko potentzialari, betiere 5. artikuluko 2 zenbakian xedatutakoa kontutan hartuta eta kilogramo bakoitzeko gehienez ere 100 euro ordainduko direlarik.

3. 3. tarifa:

3.1. epigrafea. 1. tarifako gas birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,50 koefizientea aplikatuko zaio 1. tarifan zehaztutako tasari.

3.2. epigrafea. 2. tarifako prestakin birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,50 koefizientea aplikatuko zaio 2. tarifan zehaztutako tasari.

12. artikulua. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

13. artikulua. Zerga jasanaraztea.

1. Zergadunek sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete zergaren xede diren produktuen erosleei. Erosleak kuotak jasatera behartuta egongo dira.
2. Jasanarazitako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita. Zerga ordaindu behar ez duten edo salbuetsita dauden eragiketen kasuan, egoera hori berariaz adieraziko da aipatutako dokumentuan, betiere hobari horren aplikazioa jasotzen duen artikuluko honetako manua argi eta garbi adieraziz.
3. Eragindako kuotak ez dira jasanaraziko ikuskapen-akten ondorio diren likidazio-kasuetan eta oinarrien zeharkako balioespeneko kasuetan.

14. artikulua. Kenkariak eta itzulketak.

1. Likidazio-aldi bakoitzari dagozkion autolikidazioetan, eta erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan, zergadunek herri-administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei eman dizkieten berotegi-efektuko gas fluordunei dagozkien zerga ordainduaren kuotak murriztu ahal izango dituzte, horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioari eta kontrolei jarraiki suntsiarazteko, birziklatzeko edo birsortzeko helburuarekin.

Kenkari hori gauzatzeko, suntsipena gertatu den likidazio-aldiari dagokion kuota murriztuko da. Eratorritako kenkarien zenbatekoa likidazio-aldi berean eragindako kuoten zenbatekoa baino handiagoa denean, diferentzia hurrengo autolikidazioetan konpentsatu ahal izango da; betiere, diferentzia hori islatzen duen autolikidazioa aurkeztu denetik lau urte igaro ez badira.

2. Berotegi-efektuko gas fluordunen azken kontsumitzaileek, zerga ordaindu dutenean, eta 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko eskubidea dutenean edo herri-administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei berotegi-efektuko gas fluordunak eman izana egiaztatzen dutenean ?horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioaren eta kontrolen arabera suntsitu, birziklatu edo birsortzeko helburuarekin, eta aurretiaz kenkaririk aplikatu ez bazaie?, hura itzultzeko eskatu ahal izango diote Tributu Administrazioari, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

15. artikulua. Kudeaketa-arau orokorrak.

1. Sortutako kuotak adieraziko dituen autolikidazio bat aurkeztu beharko dute lau hilez behin zergadunek; era berean, zerga-zorra ordaindu beharko dute harekin batera.
2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko ditu aurreko zenbakian aipatzen diren autolikidazioak aurkezteko ereduak, epeak, betebeharrak eta baldintzak, bai eta, hala badagokio, aurretiaz produkturen prezioan jasan duen baina kenkaririk izan ez duen zergaren itzulketa eskatzekoak ere.
3. Foru arau honetako 6. artikuluan adierazitako jarduerak egiten dituzten zergadunek nahitaez inskribatu beharko dituzte beren instalazioak Berotegi-efektuko gas fluordunei buruzko Zergaren lurralde-erregistroan.
4. Merkataritzako xedapenek eta zerga nahiz sektore izaerako beste arau batzuek zehaztutako kontabilitate-baldintzak edozein direla ere, berotegi-efektuko gas fluordunen izakinen kontabilitatea erregelamendu bidez xedatutako moduan eramatea zehaztu ahal izango da.
5. Foru arau honetako 11.3 artikuluan ezarritako zerga-tasak aplikatzeko, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

16. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan xedatutakoa beteko da foru arau hau ez betetzegatik egiten diren arau-haustek kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Poliuretanoaren sektorerako araubide berezia.

Poliuretanoa produzitzeko edo poliuretano fabrikatuan inportatu edo eskuratzen diren gas fluordunei aplikatu beharreko zergatasa kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: gasari atmosfera berotzeko duen potentziala (5.11 artikuluan zehaztua) kontuan hartuta dagokion zerga-tasa bider 0,10 koefizientea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zergan 2014, 2015 eta 2016ko ekitaldietan aplikatuko diren zerga-tasak kalkulatzeko, 11. artikuluan ezarritako tasak 0,33 eta 0,66 koefizienteaz biderkatuko dira; lehen koefizientea 2014ko ekitaldirako erabiliko da eta bigarrena 2015 eta 2016ko ekitaldietarako.

...

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak sortzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ.

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE.